



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO	
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/ 09/04-18) Hurrengo saioa: 2018/10/02)	2018-19 ikasturterako jarduerak	2018-19 ikasturteari begira antolatu diren jarduera desberdinen egitaraua eta parte hartzeko prozedura adostu da: adinduen psiko-estimulazioa, euskara, frontenis, zumba, pilates, paseo taldea, mendi irteera, zeramika, gantxillo eta sukaldaritza.	- Adinduen psiko-estimulazioa Alegiko Elkartean izango denez, Juntakoei asmoen berri eman eta egutegia ere. - Euskara ikastaroa emateko euskaltegi batekin harremanetan jarri. - Gantxillo ikastarorako Bittoriarekin harremanetan jarri.	
	Euskaraldia	Euskaraldia kanpainaren aurkezpenaren berri eman da: irailaren 22an izango da, Itsasoko Ostatuan eta honako egitarauarekin: ongi-etorria, bertsoak, azarora bitarteko kronograma, ekarpenak jasotzea, izen-emateko orriak banatzea eta pintxo-potea	Euskaraldia kanpainaren aurkezpenaren berri eman da: irailaren 22an izango da, Itsasoko Ostatuan eta honako egitarauarekin: ongi-etorria, bertsoak, azarora bitarteko kronograma, ekarpenak jasotzea, izen-emateko orriak banatzea eta pintxo-potea	- Auzolanean burutu beharreko ekimenetarako materiala eskuratu, prestakuntza tailerrak antolatu, Manurekin batera kantu afaria prestatu,...
		Euskaraldiaren aurkezpenerako (irailak 22) ideiak partekatu ditugu eta kronograma finkatu dugu: urriak 27an pankarta eta txapa tailerra burutuko da, azaroak 10ean, txapa eta gomendio banaketa eta pintxo-pote berezia, azaroak 17, kantu afaria eta azaroak 23, Euskaraldia kanpainaren hasiera.	Euskaraldiaren aurkezpenerako (irailak 22) ideiak partekatu ditugu eta kronograma finkatu dugu: urriak 27an pankarta eta txapa tailerra burutuko da, azaroak 10ean, txapa eta gomendio banaketa eta pintxo-pote berezia, azaroak 17, kantu afaria eta azaroak 23, Euskaraldia kanpainaren hasiera.	- Eskuratu dugun materiala prestatzen joan eta Ostatuko sarrera atondu, pankarta eta txapa tailerrerako dinamizatzailea/ak izendatu eta ideiak partekatu, kantu afarirako abesti sorta prestatu, izen-emate orriak jaso eta datu basea osatu, ...
	Hiruhilabeteko ekintzen plangintza eta udazkeneko ekintzak	Abendura bitarteko ekintzen egutegia finkatzen saiatu gara: euskaraldia (aurkezpena, prestakuntza tailerra, kantu-afaria), auzolana (urriak 27), erretiratuen eguna (azarokak 11).	Abendura bitarteko ekintzen egutegia finkatzen saiatu gara: euskaraldia (aurkezpena, prestakuntza tailerra, kantu-afaria), auzolana (urriak 27), erretiratuen eguna (azarokak 11).	- Sozio-kultural batzordean jarraipena eman
		Auzolana urriak 27an izango da eta Erretiratuen eguna, azarokak 11n. Egun honetarako jatetxea aukeratu da (aurten Mandubiko benta) eta gainontzeko prestaketak egiten hasteko	Auzolana urriak 27an izango da eta Erretiratuen eguna, azarokak 11n. Egun honetarako jatetxea aukeratu da (aurten Mandubiko benta) eta gainontzeko prestaketak egiten hasteko	- Abendura bitarteko ekintzen jakinarazpena prestatu - Auzolanaren prestaketa azpiegitura batzordera eraman - Erretiratuen egunerako prestaketa burutu: menua, ticket-en salmenta, etxetik ateratzen ez direnentzat loteak, dantzarien entseguak, ...
	Irudi baimena	Norberaren irudia erabiltzea baimentzen duen jakinarazpena prestatu dugu. Herriko norbaitek ekimen desberdinetan argitaratzen ditugun argazki edo grabazioetan bere irudia edo adinez nagusi ez diren seme-alaben irudia erabiltzeko eragozpenik izanez gero, horretarako prestatu dugun orria sinatu beharko du.	Norberaren irudia erabiltzea baimentzen duen jakinarazpena prestatu dugu. Herriko norbaitek ekimen desberdinetan argitaratzen ditugun argazki edo grabazioetan bere irudia edo adinez nagusi ez diren seme-alaben irudia erabiltzeko eragozpenik izanez gero, horretarako prestatu dugun orria sinatu beharko du.	- Jakinarazpena zabaldu



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/09/11) Hurrengo saioa: 2018/09/25	Adinduen psiko-estimulazio eskaintza	Laharrekin elkartzeko asmoa dago azken detaileak zehazteko. Irailak 20an hasteko asmoa dago.	Herriko pertsona baten kontratazioa martxan jarriko da ekimen honen lotura eta enpresaren laguntzaile izateko. Interesatuak izan daitezkeenekin harremanetan jarri proposamena pertsonalki eskaintzeko.
	Euskera ikasteko ikastaroa	Beasaingo euskaltegiarekin harremanetan gaude. Dirudienez proposamen bat bidaltzekotan dira.	Proposamena jaso orduko interesatuekin harremanetan jarri eta eskaini.
	Ikastaroen eskaintza	-Zumba eta Pilates: Prezioa Ormaiztegiko berdina izatea adostu da. -Frontenisa aurten ere eskaintzeko arazorik ez dela egongo ziurtatu da. -Eskaintzekin urriaren lehen astean hastea komeni dela erabaki da.	Zerki enpresarekin egon kurtso hasera data zehazteko. Ibur zalditegikoekin harremanetan jarri datorren urterako eskaintza zehazteko.
	Udazkeneko auzolana	Urriak 27 data egokia izan daitezkeela iritzi da	Izan daitezkeen lanak aurreikusitakoak.

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/09/19) Hurrengo saioa: 2018/10/03	2018ko aurrekontuen gainbegiraketa	Udal idazkariarekin batera urteko aurrekontuak, baimenduak eta erabilgarriak partidaz partida aztertu dira eta urtea bukatzerako zein kopururekin kontaktzen dugun. Orain arteko batz bestekoa aurreikusitakoaren barruan erabili da.	Datorren urtean Leader deialdiari aurre egiteko diru gerakin modura utziko da, Itsasoko Ostatu-Udaletxe eraikinari teilatu eta ganbara berritzeko
	Udazkeneko auzolana urriaren 27an	GOIMENen onartutako proiektuari amaiera emateko lanak zerrendatu dira: S Lorentzora ura eraman eta iturria eta aska egin, Epeldera doan bidean langa jarri, erretena egin Atinzabal azpitik doan herribidean, seinalizatu Itsasotik Alegira ibilaldi zirkularra zeramika plakak jarritz	Aurretiaz egin behar diren lanak, arduradunak, materialak zehaztu
	Atsusain eta Errazti belardien arteko ur kanalizazioa	Foru Aldundiak autobideko obregatik ur bideraketan utzi zituzten gabeziak konpontzeko eskaerari erantzun dio. Bide zaharrean 1,50 metrotako kanala egingo luke bi aldeak ados badaude eta gerora garbi mantentzeko konpromisoarekin.	Erraztiko jabeen proposamena ezagutarazi



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)